

udaltop

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK



IZENBURUA:

Kontrabandistarena

EGILEA:

Sustrai Colina

DATA:

2015/04/29



Aurkibidea

| | |
|-----------------------|---|
| 1. Sarrera..... | 3 |
| 2. Egungo markoa..... | 3 |
| 3. Udal legea..... | 3 |
| 4. Ondorioa..... | 5 |



1. Sarrera

«Zer arraio da erredaktore bat?!». Horixe pentsatu nuen Udaltopen erredaktore izateko proposamenari baiezkoa emanda telefonoa eskegi nuenean. Zer arraio da erredaktore bat?

Egun batzuk berantago, galderari tajuz erantzun ezinda jarraitzen nuenean, EAE-ko Udal legean zentratu behar nuela gaztigatu zidaten, ondorioak zehatz eta zorrotz bildu, eta Lasartetik Gasteizko legebiltzarrera bidean jartzea zegokidala. «Zer arraio pintatzen du Iparraldean sortu eta Nafarroan bizi den bertsolari batek euskara teknikarien aurrean EAE-ko Udal legeari buruz hizketan?!» pentsatu nuen orduan.

Horregatik erabaki dut kontrabandistarena egitea, ideien kontrabandistarena. Besteei eta zuei lapurtutako hitzak bizkarrean hartu, garia eta lastoa bereizi, zama egoki kolokatu, eta abiatzea tokatzen zait zuetako inork guardarena egingo ez duen esperantzaz.

2. Egungo markoa

Euskara hizkuntza ofiziala da Euskal Autonomia Erkidegoan. Ofiziala, edo koofiziala. Hala, harremanetarako tresna normala da euskara, euskaraz egindako ekintza eta komunikazio orok benetako ondorio juridikoak ditu bai herritarrentzat, bai botere publikoentzat.

Dena den, euskara lan hizkuntza izan arren ezin zaio lehentasunezko erabilerik aitortu. Ezin dio gaztelaniaren koofizialtasunari kalterik egin, eta bitartean, denek gazteleraz jakiteko betebeharrak eta presuntzioak tinko darraite eta ez dago gaztelera normaltasunez erabiltzeko eskubidea eragozterik.

Zer esan nahi duen horrek? Orokorrean eta termino estrukturaletan gaztelera nagusitasuna ezarri dela, euskara ez dela erabilgarria estatuko botere zentralekin harremanak izateko, ezta ezinbestekoa EAE-ko administrazioekin tratua izateko. Bestela esanda, euskararen borondatezko erabilera sustatzeko ez dago inolako arazorik, baina derrigorrezko erabilera sustatzea ezinezkoa da.

3. Udal legea

Kontestu horretan dator Udal Legearen proposamena. Kontestu horretan eta kontestu horretarako. Izan ere, egungo marko eta jurisprudenzien mugetatik idatzi den lege bat da, ez euskararen premietatik abiatuta pentsaturikoa. Are gehiago, euskara garau bat besterik ez da Udal legean, ez du beharrezko zentraliterik.

Alabaina, horrek ez du dena txarra duenik esan nahi. Legeak, orohar, mesede handia egingo dio euskarari. Lege honetan, eskubide historiko eta toki autonomiaren printzipioetan oinarritzen den eredu propio eta integral bat lantzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoak. Euskara toki politikaren kalitate instituzionala hobetzeko lanabes eta zilegitasunaren ikur bihurtzen du. Aipatzekoa da legean zehar euskarari eta hizkuntza eskubideei onartzen zaien zeharkakotasuna.

Zeharka bada ere, honatx legean gaindi euskarari loturik ageri diren korapilo batzuk euren ezaugarri, kontraesan, eta airean uzten dituzten galderekin.

3.1. Euskara hizkuntza ofiziala izateaz gain berezko hizkuntza ere bada

Euskararen legeak, besterik ezean, elebitasun simetrikoa malgutzen du, hizkuntza bakarraren erabilpenari bide emanez. Egungo sistema elkartutik hizkuntza bakarraren erabilera legezkoa den bereizi gabeko erabilera sistema baterako saltoa proposatzen du. Hala, euskara izan daiteke zerbitzu eta lan hizkuntza, baina baita gaztelera ere.

Onargarria ote EAE-ko udalerrietan gaztelera izatea normaltasun osoz erabiltzen den hizkuntza? Zergatik ez da Berezko Hizkuntzaren printzipioa behar bezala garatzen?



3.2. Euskara hutsez izan daitezken dokumentuak

Legeak euskara hutsez idatz daitezken dokumentu zerrenda itxi bat ematen du. Ongi. Baina zergatik da zerrenda itxia zerrendatik kanpoko dokumentuak euskara hutsez idazteko arazo juridikorik ez badago? Onargarria al da administrazio periferikoetan euskaraz aritzeko aukera zabalagoak izatea udalerrietan baino? Puntu hau ez al dago euskara lan hizkuntza izatearekin kontraesanean? Nori dagokio zerrendako dokumentuak euskaraz izan daitezkeela agintzea?

Galderak gutxi ez, eta nahikoa da zinegotzi bakarrak euskaraz ez jakitea euskara hutsezko erabilera hori ezinezko bihurtzeko. Ez al da zalantzarria berme horren ezinbestekotasuna?

Galderak-galdera, zorionez, legeak espreski dio erabat zilegia dela udalek onartzen dituzten erabakien kopia zein aktak euskara hutsean bidaltzea Estatuko eta Erkidegoko administrazioetara.

3.3. Lan Hizkuntza eta Komunikazio Hizkuntzei dagokionez

Toki administrazioek hizkuntza ofizial bakarra erabil dezakete eta hiritarrei nahi duten hizkuntza ofiziala helarazteko mekanismo bat aurrikusi behar dute interesatuei kargarik eta betebeharririk eragin gabe.

Hori hala, ez al daude kontraesanean interesatuaren hizkuntz hautua errespetatu beharra eta interesatuari aukera hori zein den ez esateko eskubidea aitortzea? Zer gertatzen da administrazioak hiritarraren hautu linguistikoa asmatzen ez duenean?

3.4. Euskararen erabilerarekiko udal eskumenak

Euskararen erabilerarekiko udal eskumenak zehaztu eta aldarrikatzen ditu legeak baina ez du inolako betebeharririk aurrikusten. Gauden egoeran egonda, betebeharririk gabeko eskumenak ez al dira labur geratzen?

3.5. Hizkuntza Pasaia

Legearen arabera, hizkuntza paisaiari arloan elebitasuna da bermatu behar dena. Baina ez al da zurrunegia testuinguru batzuetarako? Eraginkorra eta praktikoa ote da?

3.6. Hizkuntza eskumenak baliatzeko tresna eta teknikak

Gisa berean, hizkuntza eskumenak baliatzeko tresnak eta teknikak zerrendatzerako orduan, araugintzakoak aipatzen dira bereziki. Zergatik ez beste batzuk agerrarazi beste lankide batzuekin erabiltzeko gisakoak?

3.7. Administrazioen arteko harremanak

Udal legeak dioenez, akordioen arabera gauzatuko dira Administrazioen arteko harremanak hizkuntza batean edo bestean. Utzi daiteke euskararen erabilera administrazioen arteko akordio baten menpe?

3.8. Udal langileak eta euskara

Bestalde, lege proiektuak nazio gaikuntza duten funtzionarioen erregimenaz dihardu. Hala, hornitze lehiaketetan, hizkuntz eskakizunaren sistemarekin batera, euskararen ezagutza kontutan hartzea erantsi behar litzaiokie proposamenari.



3.9. Falta direnak

Azkenik ezin aipatu gabe utzi lege zirriborroak aipatu gabe uzten dituenak. Legearen partxe izaera murrizteko asmoz, etengabeko estaldura eta babes handiagoaren bila, komeni litzateke legeak hizkuntza eraginaren ebaluazioa eta kontratazio zein diru-laguntzetan hizkuntza klausulak aintzat hartzea.

4. Ondorioa

Honezkero, kontrabandista baten hitz lapurtuek sinesgarritasun gutxi eta pisu gutxiago dutela pentsatuko duzue zuetako askok. Ez litzateke lehen aldia, ordea, kontrabandistak legea egiten bukatzen duena.

Gainera, EAE erdaldunaren paradigmaztat Barakaldo duguno eta iparraldeko publikoa dagoen forotan legeak gazteleraz irakurtzen dituguno, ideien kontrabandistak ez ezik kontrabandisten ideiak beharko ditugu. Ideiak eta zamak bizkarrean hartu eta bide-zidor berrietan barna abiatzeko kemena, guarda burusoil, betaurrekodun elebakarren ehizari ixkin egiteko abilezia.

Ixkin egiteko abileziaz ari garela, eta zuek oso galderazaleak zaretela ohartu naizenez, niri galdetzea alfer-alferrik dela azpimarratu nahi dizuet. Egia, haurrek, eroek, eta mozkorrek esaten dute, ez kontrabandistek.

Hori bai, kontrabandista eskasa naiz ni, eta apur bat estutzen banauzue, berehala salatuko dizkizuet nire buruzagien izenak. Zelai Nikolas, Iñigo Urrutia, Begoña Garmendia, Eneritz Zabaleta, Ione Josié, Rosa Mondragon, Ane Miren Etxeberria, Iñigo Lamarka, Malores Etxeberria, Laura Perez, Eduardo Santos, Joseba Belaustegi, zuek...

Milesker eta on egin!!!